



Pertsonen Salerosketaren aurkako Europako Egunerako komunikatua, urriak 18.

Pertsonen Salerosketaren aurkako Europako Egunean –urriak 18–, guk, Salerosketaren aurkako Elizarteko Taldeak, Espainiako Gotzain Konferentziako salerosketa-atalaren babesarekin, zinez aitortu nahi dugu biktimak bistaratzeko estamentu guztiak egiten ari diren lan handia.

Aldi berean, esklabotza-modu modernoek etengabeko sufrimendua eragiten dutela **berresten dugu**, eta irmo **salatzen dugu** gizarteak salerosketa-mota guztiak toleratzeko eta mantentzeko erakusten duen konplizitatea: sexu-esplotazioa, lan-esplotazioa, organoen trafikoa, eskaletasuna, behartutako ezkontzak, lege-hauste diren ekintzak eta beste edozein esplotazio-modu.

Konplizitate hori erakusten dute egoera hauek: ezjakintasunak, salaketarik ez jartzeak eta prostituzioa nahiz lan-esplotazioaren ondorio diren produktuak kontsumitzeak.

“Arazoaren berri izan arren, batzuek nahiago dute gaiari buruz ez hitz egin, kontsumo-katearen azken muturrean daudelako; izan ere, trafikatzailleak salerosketa-kateko katebegi bat dira, baina merkatuak sortzen duen eskaera ere beste katebegi bat da. Salerosketa amaitu ahal izateko, beharrezkoa da eskaera amaitzea”. (Frantzisko aita santua)

Gaur egun, gerretatik edo goseteetatik ihesi, milioika pertsona daude beren sorterriak uztera behartuta, eta pertsona horiek bermeekin migratzeko eskubidea dutela **aldarrikatzen dugu**: eskubidea dute bideko edo helmugako herrialdeetan hartuak izateko, bizitza hobea lortzen saiatzeko, ateak irekita izateko, duintasunez bizitzeko aukera bat izateko eta gizartean gizartearen eraikitzaile gisa integratuak izateko, salerosketen biktima izan gabe.

“Pertsonen salerosketa gizateriaren aurkako krimen bat da, gizarteko pertsona zaurgarrienen esklabotasun-modu bat; hori dela eta, beharrezkoa da guztiok



erantzukizuna hartzea eta borondate politiko irmoa egotea hari aurre egiteko".
(Frantzisko aita santua)

Salerosketaren balizko biktimak detektatzeko eta bistaratzeko, sentsibilizazio eta prestakuntza handiagoa **eskatzen dugu**. Lehenbailehen igaro behar dugu fenomenoari ez ikusiarena egitetik erantzukizun pertsonal eta kolektiboa hartzera, esklabotasun-modu hori errotik kentzeko konpromisoa hartzeko.

Honako hauek **eskatzen dizkiegu** erakunde publikoei:

- Egin ditzatela muturreko pobrezia, indarkeria, ustelkeria, antolatutako krimena eta pertsonen salerosketa eta trafikoa amaitzeko balioko duten politikak.
- Ezar ditzatela migrazio-bide seguru eta legezkoak, giza duintasunaren defentsa eta pertsonen oinarrizko eskubideak bermatzen dituztenak.
- Bideratu dezatela giza garapen osoa, haurtzarotik kalitatezko hezkuntza emanaz eta sorterrietan prestakuntzarako eta enplegurako aukerak sortuz.

Honako hauek **eskatzen dizkiegu** Elizaren erakundeei:

- Frantzisko aita santuak migratzaileak, errefuxiatuak eta pertsonen salerosketaren biktimak **hartzeko, babesteko, sustatzeko eta integratzeko** egindako deia bultza dezatela.
- Inplika daitezela Migratzaileei, errefuxiatuei eta salerosketen biktimei buruzko NBEren 2018ko Itun Orokorretarako Egoitza Santuak proposatu zituen hogeitazekintza-puntuen gaineko sentsibilizazioan, hedapenean eta abiaraztean.

Honako hauek **eskatzen dizkiegu** herritar guztiei:

- Izan dezagula esklabotasun-mota guztien aurka borroka egiteko inplikazio aktibo eta eraginkorra, migratzaileekin harremanak izateko dugun modua eta gure kontsumo-ohiturak zalantzan jarritz.



- Izan dezagula adorea eta zintzotasuna, pertsonen salerosketaren aurka argi eta garbi egiteko.
- Galde diezaioguna geure buruari hazkunde ekonomikoaren ereduari buruz; Frantzisko aita santuak esaten digun moduan, hazkunde ekonomikoaren eredu horrek diruari ematen baitio lehentasuna, pertsoneri eman beharrean.

Eskatzen dugu, esklabotasun hori jasaten duten pertsonetarako elkartasun eraginkorra sustatzeko esperantzaz, ez gaitezela erori axolagabetasunean, entzun dezagula duintasuna eta askatasuna ukatu zaien anai-arreba ugari horien oihua, eta senda ditzagula haien zauriak.

Bakean bizi den mundu bat **amesten dugu,** eta horren alde **lan egiten dugu;** mundu hori guztion etxea izan dadin, eta guztiok senti gaitezen gizateria den familia handi horretako parte, berdintasunean. Mundu horretan, hautsi daitezen, azkenean, esklabotasunaren kate guztiak.